



ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

24. Alea 1998ko Urria



MARISTETAKO LORATEGIA BERRESKURATZEN

- MENDI IRTEERAK PICOSetara eta ELGEAra
- Elkarrizketa: Eneko Murua, intsumiso taldeko partaidea
- Gure Berbetan: Hurrengo datozenak

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

- Udaletxea 714407
- Udal Bulegoak 714532
- Udaltzaingoa 714407
- Euskaltea 792168
- Kultur-Etxea 714688
- Gizarte-Laguntzailea 714688
- Kiroletxea 715328
- Liburutegia 714688
- Luis Eceiza 714938
- Jose Arana-Almen Ikastola 714486
- Almen 714964
- Museo-Eskola 714688
- Ze Barri 714077
- Talde Antimilitarista 715028
- Irakasle Eskola 714157
- Osakidetza 714452
- Telesko 714917
- Taxia 714059

Bestelakoak

- Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 797199
- Suhiltzaileak (Oñati) 792800
- Renfe (Zumarraga) 721515
- Renfe (Gasteiz) (945) 232030
- Pesa (Arrasate) 902 101 210
- Larrialdiak (Arrasate) 771043
- SOS Deiak 112

Eneko Murua Izaguirre

Ikaslea eta talde antimilitaristaren partaidea

1- Non ikasten duzu?

Eskola Profesional Politeknikoan, Almenetik etorri naiz aurtun.

2- Zer egin nahi duzu gero?

Orain 2 urteko ziklo formatibo bat egiten hasi naiz, makinak mantentzen ikasteko da eta hau bukatu ondoren lantegian hasi nahiko nuke.

3- Zer iruditzen zaizkizu Eskoriatzako obrak?

Luzera doazela, denbora asko daramate eta oraindik falta zaiena ..., lotsagarria da bidea horrela edukitzea. Denok "todo terrenoak" erosi beharko ditugu honela jarraituz gero.

4- Eta giro politikoa?

Orain dagoen alkatearekin ez goaz inora, ea datozen udal-hauteskundeetan aldatzen dugun eta hoberako espero dut; ez da zaila izango.

5- Noiztik zaude talde antimilitaristan?

Talde berria sortu zenetik, 4 urte gutxi gora behera.

6- Intsumisoa zara?


Bai, baina alergia bategatik libratu nintzen.

7- Oso altua zara, zenbat?

1,93m. Eta kokoteraino nago jende guztiak hau galdetzen didalako.

8- Nola erabiltzen duzu zure aisialdia?

Erretzen eta edaten lagunekin eta denbora edukitzen badut, ikasten.




9- Zer aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?

Herriko jendeari laguntza eta askatasun gehiago emango nioke gauza berriak sortzeko eta daudenak mantentzeko.

10- Zerbait nabaritzen duzu faltan "ZE BARRI?" aldizkarian?

Komiki bat eta iritzi artikulua gehiago; adibidez Teleskori buruzko artikulua oso ondo zegoen.

ESKORIATZAKO IRUDIAK



ZE BARRI?

Argitaratzailea:
AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez.

Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Aitor Urrutia.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1.500 ale

"ZE BARRI?" aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"



ESKORIATZAKO UDALA
Euskara Batzordea

Aldizkari honek Udaletxearen laguntza jasotzen du

EIZMENDI
okindegia eta gozotegia
Eduardo Gorosari plaza
Tfnoa. 943 715417

ALTUNA
Harategia
Etxean hazitako okela
San Pedro, 3 • Tf. 943 714104
HARATEGIA • Tf. 943 714464

TXALAPARTA JATETXEA
Tfnoa.: 715046

Picos de Europa mendi irteera

Pilarikako zubia aprobetxatuz mendi irteera egin genuen Eskoriatzako Mendi Elkartetik. Eguraldia lagun kaskarra izan arren, irteera honetarako hamazazpi lagun animatu ginen. Asturias eta Kantabria aldeko paraje dotore horiek ezagutzeko gogoz ginen, eta zaparrada gogaikarriei aurre eginez egunero egin genuen ibilaldiren bat edo beste.

Lehen egunean, eta iragarrita zegoen eguraldi onak kale egin zigula ikusita, txamarrak leporaino lotu eta aterkiak eskuetan hartuz La Hermidako desfiladeroan barrena abiatu ginen, bertatik Tresviso herriskara iristeko. Senda estu haren barrenean geundela gatxa egiten zen sinistea bide hark mendi artean galdutako herriska horretaraino eramango gintuenik. Baina bai, uste baino lehenago, bi orduren buruan Trevison, ostatu hartuko geunen herri hartan ginen. Mela-mela eginda heldu ginen arren, bertako aterpetxe batean ederki asko hartu gintuzten: dutzatzeko ur beroa guztiok eskertu genuen, baina baita eman zizkiguten afari eta gosariak ere.

Igandean Peña Castil mendia igotzeko asmoak hutsalak izan ziren. Berrito ere eguraldi kaskarrak behartu gintuen amore ematera eta laino itsu harekin noraezean ibili beharrean, zuhurtasunez beharantz egitea erabaki genuen. Dena den, oraindik goiz zenez eta indarrez ere erando ginenez, mendi aldean galduriko beste herriska baten bila abiatzea pentsatu genuen eta baita arratsalde erdirako Bulnes herriska dotorea aurkitu ere. Naranjo mendiaren magalean babesturik dagoen herriska izanik bisitari dexente zegoen bertan; batzuk mendi puntarako asmotan, eta beste batzuk gure antzera,



Peña Castil igotzeko indarberritzen hamarretakoa eginez inbidiaz mendien edertasuna barrenetik gozatzen genuela.

Hirugarren egunean gutako askorentzat hain entzuna den Ruta del Cares egin genuen. Poncebos herritik abiatuz, 12 km dituen Cares errekararen ibilbidea egiten da Cain izeneko beste herriska batera heldu arte. Ikusgarriak dira bertako barrankoak.

Eguraldi goibela astebukaera osoan lagun izan genuen arren, beroni desafio eginez gure asmoak betetzea lortu genuen eta pozik bueltatu ginen iluntzean Eskoriatzara. Hainbeste disfrutatua genuen irteera honetan ezen zenbaitzuk biharamunean agujetarik ere ez genuen sentitu

PARKE EOLIKOAREN AURKAKO MENDI MARTXA

Pasa den urriaren 18an, Degurixa aldea Deba Garaiko mendi talde eta ekologisten bilgune izan zen berriro ere. **Euskal Mendizale federakundeak, Besaide, Murruxio, Pol-Pol, Aloña Mendi, Lagun Onak, Soraluze eta Eskoriatzako Mendi Taldeek, Eki eta Eguzki talde Ekologistek, eta Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak**, dehia haldia luzatu zuten, gain-gaiean daukagun Parke Eolikoaren proiektu erraldoiaren aurka protesta egin, eta aurrerantzean gure mendiak arriskupean jarri dituen erakunde publiko eta enpresen asmoen aurka hartu beharreko bideak zehazteko. Izan ere, ez dira txantxetakoak, proiektu honek aurrera eginez gero, laister, Elgeako mendizerrara eta Euskal Autonomi Erkidegoko beste hainbat menditara ekarriko dituen aldaketak. Elgeko parkea egin ahal izateko egin beharreko tramite administratibo guztiak betetzear daude dagoeneko, eta gauzak horrela, oso posiblea da urte honen amaierarako, mugarriluze aldean lehenengo haize errotak jartzeko lanetan hastea.

*Oso
posiblea da urte honen
amaierarako, mugarriluze aldean
lehenengo haize errotak jartzeko
lanetan hastea.*

Eguraldia, aurreko zitan bezain txarra izan zuten bertara hurbildu ziren mendizale eta naturzaleek. Lehen aipatutako taldeetako bozeramaleetako batzuk izan ziren Degurixan bildutakoak, eta gauean zehar, Eolikoan aurkako borrokan etorkizunean jorratu beharreko bideak aztertu zituzten. Amuategiko tontorrean elkartu ziren denak eguardiko hamabietan, eta bildutakoek parke eolikoei buruzko hitzaldi bat entzun ahal izan zuten baita.

Datorren asteburu honetan beste kontzentrazio baterako dehia haldia zabaldu dute (urriak 31 eta azaroak 1). Elgoibar, Zestua eta Azkoiti bitarteko lurraldetan dagoen Karakate mendian izango da bilera.

Gaua Karakate eta Atxolin mendien artean dauden zelai batzutan pasako da, eta bertan parte hartzea nahiko luketen guztiak Azkoiti, Elgoibar edo ta Soraluzeko plazatan elkartu beharko dute gero goian biltzeko. Hurrengo egunean, azaroaren lein, goizeko 9'tan itenda Irukurutzeta-Karakate ibilaldia egingo da.

Beraz, badakizue, animatu eta parte hartu, Txoritxo batek esan digunez, eskoriatzarrik bat ere ez bait zen agertu Degurixako bilerara!



Elgeako mendizerra

A & B
aholkulariak

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA
LAGUN-ARO ASEGUURAK**

ALDETEC



**TASAZIOAK
PERITAZIOAK
PROIEKTU ING.
OBRA ZUZENDARITZAK
ERREFORMAK**

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 943 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

Gastañadui, 7 - bajo
Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 **20540** **ESKORIATZA**

Maristen arbolategi eta lorategiaren berreskurapena

PROIEKTUA

Duela pare bat urte Deba Garaiko mankomunitateak, INEMen laguntzarekin, bide gorriak, trenbidea eta honen ingurunea berreskuratzeari ekin zion.

1997an trenbidearen bi zati berreskuratu ziren; Radar-etik Mazmelako bidegurutzera doan zatia eta Marisa-tik Arabako mugara doana. Aurten beste proiektu bat egiteko asmoa zeukaten, baina bertan behera geratu zenez, eskoitzar batek Marianistena izandako ingurunea berreskuratzeko proiektua aurkeztu zuen eta ontzat eman zioten.

Hasierako asmoa Esteibarren urretza dagoen iturritik Eskoriatzako bainuetxera bitarteko zuhaitzak eta zuhaixkak berreskuratzea zen (XIX. mendean gaztainondo eta platanoz inguratutako paseoa 400m. zeuzkan), baina ingurune horretan industrialde bat egiteko beste proiektu bat ere bazegoen, onartu barikoa, eta badirudi lan hau egiteko erabiliko den azpiegituraz baliatuz biak egingo direla.

HISTORIA

Bainuetxea 1865ean eraiki zuten eta 1895ean itxi. Denboraldi horretan etortzen ziren bezero gehienak Espainako aristokratik zirenez, fama handia hartu zuen bailarak, honekin hiru bainuetxe baitzeuden oso gertu, Eskoriatzako, Santa Agedakoa eta Aretxabaletakoa, Portasolen.

Baina garai hartan Espainiako errege zen Alfonso XII.aren arreba hil zen Eskoriatzan eta Angiolillo anarkistak Canovas del Castillo hil zuen Santa Agedan (geroago Angiolillo hilgo zuten Bergarako plazan "garrote vil" bidez). Bi gertakizun hauek fama txarra eman zieten hemengo bainuetxeei eta noble guztiak "Bella Easo"ra joaten hasi ziren.


1895ean Marianistek etxea eta 17 hektarea erosi eta eskola jarri zuten, baina 60ko hamarkadan itxi eta saldu egin zuten. Beranduago Almen eraiki zuten, baina tamalez erosleak ez zuten jardina botanikoa mantentzeko ardura hartu eta inguruan parekorik ez zuten jardina hondatzen joan zen oraingo egoera penagarri iritsi arte. Bazegoen Marianisten garaian fosil eta mineral kolezio oso interesgarria, baina hori ere guztiz desagertuta dago.



2 sequoi erraldoi eta erdian nekosta arraro bat (cipres).



Ezkerretik eskumara: gaztainondoak eta platanook.



ALDI
JANARI DENDA

Hidalga, 8
Tfnoa: 943 71 45 42

SAON DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA

DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 943 71 51 20

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa fundazioa
fundación



Ezkerretik eskumara: Pinsapo, Tilo, Sequoia gorria eta picea (Abeto gorria)

ZUHAITZAK

Zaharrenek 130 urte inguru izango dituzte

"Sequoia" erraldoia	Sequoia gigante	(Usa)
"Sequoia" gorria	Sequoia roja	(Usa)
"Pinsapo (Izie andaluza)	Pinsapo	(abeto andaluz)
Himalayako zedroa	Cedro del Himalaya	(Asia)
Atlaseko zedroa	Cedro del Atlas	(Africa)
Magnolia	Magnolio	(Usa)
Haritx amerikanoa	Roble americano	(Usa)
Judasen arbola edo maitasunarena	Arbol de judas o del amor	(Asia)
Akazia arbola	Acacia falsa	(Usa).
Indiako gaztainondo	Castaños de indias	(Bulgaria)
Platanoa	Platano	(Euroasiaticos)
Elizarra	Fresno 0 (autoctono)	(Euskadi)
Haretza	Roble (autoctono)	(Euskadi)
Exkixe (4 edo 5 elegantiek)	Tilo	(Europa)
"Piceas"	Picea	(Europa)

ZUHAIKAK

Mota askotakoak daude, baina aipatzekoa da ez direla basalandareak, kanpotik ekarritakoak, landatutakoak baizik. Arrosoak, adibidez, oso zaharrak dira eta interesgarri izango litzateke hau dena aztertzea denborarekin nola aldatu diren ikusteko eta Marianisten jardina zelan zegoen jakiteko.



Eskumatik ezkerreara: Lizar bat, gaztainondoak eta platanoak.



Esteibarko iturria.

IMPORTANTEENA

Lan hau egiteko diru publikoa erabili ondoren, penagarria izango litzateke berreskurapena berriro ahaztea, 6 lagun 2 hilabetan lanean egon eta gero, mantenimendu lana askoz errazagoa baita.

Eskoriatzan oraindik garaiz gaude lorategi paregabe eta aberats hau mantentzeko eta gozatzeko.

Lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu Udalari errekadutxo bat emateko: Eskoriatzako jardinen egoera penagarria da, ea norbait hasten den honetaz arduratzen, bestela jardina eta zuhaitz barik geldituko gara. Kontua ez da bakarrik berdeguneak jartzea, baizik eta hauen mantenimendua ondo eramatea, eta horretarako lorazain bat egon beharko litzateke egunero herrian.

BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

E. MAZMELA

HORTZ
KLINIKA

Tel. 943 71 47 36

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA

EROSLE

HARATEGIA,
FRUTATEGIA eta
BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3
Tfnoa: 943 714546

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Aurten 156 ikaslek eman dute izena eta, iaz bezala, 11 taldetan banatuta daude. 6 irakasle daude eta zuzendari lanetan Karmele Agirregabiriak jarraitzen du.

Aretxabaletan euskaltegiak helbide berria du, Nafarroa etorbidea, 2-4, Portasol; Valdezate taberna parean. Orain dela 9 urte ere bertan egon zen baina oraingoa handiagoa da, 5 gela, irakasle gela bat, biltegi bat, 2 komun eta harrera atsegin bat dauzka.

Talde banaketa honako hau da:

- Ederlan 1.urratsa (8-9'30)
 - Fagor sistemas 1.urratsa (13'30-14'30)
 - Ederlan 3.urratsa (8-9'30)
 - 1.urratsa (9'30-11'30) eta (18'30-20'30)
 - 2.urratsa (10-12) eta (15-17)
 - 5.urratsa (19-21)
 - 7.urratsa (14'30-16'30)
 - 10.urratsa (9'30-11'30)
 - Mintza taldea (8-9)
- Aretxabaleta Tel.: 943 792168
Eskoriatza Tel.: 943 792168

ANIMA ZAITEZ !!!



Euskaltegiko lokal berria.

ARRANOAZABALIK.

Azaroaren 24an zabaldu zituen berriro Irrintzi tabernak bere atak hilabete honetan itxita egon eta gero. Naiara Errasti eta Ohiana Larringanek hartu dute tabernaren ardura eta itxuraberrituta aurkitu dugu, hasieran zeukan txokoa berriro zabaldu dute eta. Goizeko 9'30tatik zabalik egongo da.



Arranoa

San Miguel jaiak Bolibarren

Aurten elkartu dira bai Bolibarko jubilatuek San Miguel jaiak ospatzeko. Irailaren 26an, zapatua, bi urtetik behin egiten duten moduan, bazkaria eduki zuten jubilatuek eta bertan izan ziren beste hainbat auzokide ere.

Goizean don Cruzek, Bolibarko abadeak, meza eman zuen eta ondoren, egun hau aitzaki hartuta, auzoko zaharrenak omendu zituzten opariak emanez. Auzoko zaharrenak Karoi baserriko Andres eta Maria dira, 91 eta 89 urterekin.



Bolibarko eskola zaharrea izan zen bazkaria, eta trikitilarien soina lagun, zalantzarik ez dago umoretsu, elkarrekin barriketan, gustora pasa zutela egun hau bertaratu ziren guztiek.

UDAZKEN KULTURALA

98ko azaroaren 5ean hasiko da aurtengo Udazken Kulturala. Ekintzen artean honako hauek egongo dira:

- Hitzaldiak
- Euskal dantzak
- Mendi irteera eta ibilaldiak
- Mendi bizikleta ibilaldia
- Erakusketak eta mahai ingurua
- Arrasate Musikalaren kontzertua
- Musika Eskolako Bandaren kontzertua
- Ipuin kontalariak
- Bertso afaria
- Takolo Pirritx eta Porrotx...

Udaletxearekin batera, antolatzaileak hauek dira:

- Eskoriatzako Museo Eskola
- Gorosarri abesbatza
- Axtroki
- Luis Ezeiza Guraso Elkarte
- Gorosarri dantza taldea
- Amuska
- Olazar Jubilatuen Elkarte
- Jose Arana-Almen Ikastola
- Musika Eskola
- Intsumiso taldea.



1996ko txiste afariko argazkia: Gardoki eta txiste kontalariak

ESKORIATZAKO 1998ko HAUTESKUNDEEN EMAITZAK

	1998	1994
EH -----	711 boto	491 boto
EA -----	474 "	490 "
PNV -----	453 "	409 "
PSE-EE -----	374 "	311 "
PP -----	235 "	100 "
IU-EB -----	127 "	83 "
UA -----	2 "	0 "
Besteak -----	10 "	1 "
Abstentzioa ---	28,5%	39,45%
Zentsua ----	3361	3166

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Espiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

Herriko plaza ☎ 943 79 81 78
ARETXABALETA



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943 715061

Gure berbetan**Hurrengo datozenak**

Gaur, beste erremeixoik barik, hurrengo datozen botazinuen gainien berba ein biher. Seguru asko, leporaino egongo zare hainbeste politikaz eta politikokoin, baina temiak, inungo dudaik barik, eta gehixau bizitten gabitzena moruko momunto baten, hausnarketa bat mereziru dau.

Temia gatxa da benetan, baina inportantia. Gatxa, alde batetik, nik hau eskribiruten dotenien eztielako zelebrou botazinuok, baina baitta, zueik hau leirutendozuenien, pasauta egongo dielako be. Hurrengo alerako itxikoittugu konklusinuak. Bestelde batetik, hain gatxa ta inportantia izenda, erozer gauza esango banau be, bateonbatzuk pentsau leikielako "ZE BARRI?", direzino konkretu baten adotrinetako asmuaz dabilela. Horreatik, pentsau dot, gaurkuak, euskaldunok daukoun modu orijinal baten esatia: Bersotan. Parkatukustazue bersozale ta gainerako entendiruok ni moruko nobato baten atrebimentua, baina hor doa nire gaurko hausnarketia:

Eskoitzarrok
Baitta Gatzarrok
pentsau bihou
botuaz zer ein
Gure bi herrixen
Etorkizuna ezik
Euskaldunona
Dau jokuen
Euskal herrixa
Nora doiegun
Euki biheda goguen
Direzino bat
Hartu eta gero
Jarraitu daigun bidien
Aurrerakuen bizi gaittezen
Gorrotok barik pakien (bis).

D. M. III.na.

P.D: Euskal astia be ba Ei dator, hurrengo hil hasieran. Pozgarria, dudaik ez. Baina ez ete gittuke euki biher urtero 52 euskal aste?. Hor doa pelotie, bakotzak gure dauen moruen hartu daixela.

DIRULAGUNTZAK

* BBK eta Bilboko Arte Ederretako Museoren eskutik, **ikerketa artistikoak** egiteko dirulaguntzak. **Epea: abenduak 1.**

* 1999an Alemaniako unibertsitateetan **udako ikastaroak** egiteko dirulaguntzak, ikasle eta katedradunentzat. **Epea: abenduak 4.**

* Alemaniako Goethe Institutuan **aleman ikastaroak** egiteko aukera, ikasketen azken edo azkenaurko kurtsoa egiten ari diren ikasleentzat, edo unibertsitateetan lanean diarduten tituludunentzat. **Epea: abenduak 11.**

LEHIAKETAK

* Hondarribiko Udalak, **Bordari ipuin saria** eta **Satarka olerki saria** antolatu du. **Epea: azaroak 6.**

* Juanxu Rodriguez **argazki lehiaketa**, Portugaleteko Margen taldeak antolatua. Argazkiak, gai librean. **Epea: azaroak 13.**

* Eibarko Udalak, XIV. **Gazte ipuin lehiaketa** antolatu du, 14-17 eta 18-25 urte artekoiei zuzendua. **Epea: azaroak 20.**

* Astigarragako Udalak, urteroko **argazki lehiaketa** antolatu du; zuri beltzeanedo koloretan eta gai librean. **Epea: azaroaren 27an.**

* Ermuko Udalak bultzatuta, aukera berdintsunaren eta feminismoarekin lotuta, historikoki garrantzitsuak izan diren emakumeen edo haien jardurerarekin zerikusia duten izenak erikin, kale edo plazei ipintzeko ideia lehiaketa. **Epea: azaroak 27.**

* "Portugaleteko Hiria" **komiki lehiaketa**, euskaraz edo erderaz, gai librean eta 4 orrialdeko luzeeraz. **Epea: urtarrilak 15.**

Motorra saltzen da Gilera RC 600cc.
Trail - 250.000 pzt. TFNO: 943 714547
GAIZKA.

Azaroaren 7an BERTSO AFARIA LIZASO ETA MAÑUKORTAREKIN
Egokiena Elkarte. Sarrerak Arrano, Mirentxu, Aldatz eta Urrestila tabernatan.

Azaroaren 21an 2urtetik 10 urtera EZKURTZO Marinen kontu kontari.
(Ipuin kontaketa, diaporama, ibilaldia, maskotaren pina eta txokolatada).

Azaroaren 28an TAKOLO PIRRI TX ETA PORROTX pailasok azken lanaren aurkezpena egingo dute Eskoriatzan, azken urteetako harrera ona ikusita.

AGENDA**IKASTAROAK**

* Sakontze mailako **karibear dantzen ikastaroa**. Azaroak 11tik abenduak 16 arte. Astelehen eta asteazkenetan, 7.30etatik 9.30etara, Musakolako Saloian. Matrikula 4000 pta /2500 pta ikasle eta langabetuentzat. **Izen ematea, Gazte Bulegoan.**

HERRITARRENTZAKO IKASTAROAK KULTUR ETXEAN:

* Urriari jadanik martxan ditugu pintura eta eskulan ikastaroak Kultur Etxean.

Eskulan ikastaroa astean zehar izaten da:

Asteartean: 18:15-20:15

Asteazkenetan: 9:45-11:45 (goizez).

18:00-20:00 (arratsalde).

Ikastaroak 3.000 pezeta balio du.

Pintura ikastaroa urriaren 3an hasi bazen ere, agian oraindik garaiz zaude zuretzat lekutxo bat egiteko. Pintoreak larunbatetan (14:30etatik - 16:30etara) aritzen dira akuarelak nahasten eta lientzoaren gainean irudimenak agintzen dien marrazkiak egiten. Ikastaro honek bederatz hilaite irauten ditu eta bere **kostua 2.500 pezetakoa da.**

Informazio gehiago nahi izanez gero, Kultur Etxera dei dezakezu edo bertatik pasatu, horrela artista hauen lana ikusteko aukera izango zenuke eta.

* Udaleko Gizarte Zerbitzuek jakinarazi digute urtarrilaren 18tik **bi tailer** emango direla bata gizezkoentzat eta bestea emakumezkoentzat.

Bertan **gizezkoek sukaldaritza, garbiketa, jostingintza, eta plantxa bezelako lanak** ikasiko dituzte eta **emakumezkoek berriz iturgintza, mekanika, elektrizitatea eta brikolaje bezelakoak.**

Tailer hauek **60 orduko iraupena dute.**

Izena emateko etorri Gizarte Zerbitzueta **abenduaren 14tik urtarrilaren 8ra bitartean.**

Matrikula **5.000 ptas.** balio du kasu bietan.

**BEHOBIA-DONOSTIA
LASTERKETA 98/11/8**

Industrias Olabarri, S.A.

Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxa: 34-43 - 714061

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura

LENIZ
AUTO ESKOLA

tel. 943 71 41 86

Gida baimen guztiak!



Hona hemen koadrila polita, orain hogei urteko Urdelardero egun batean.

Goitik behera eta ezkerretik eskumara: Izaskun Ezpeleta, Garikoitz Kortazar, Jose Antonio Uribe-Etxebarria, Leire Encina, Luis Aranburuzabala, Peio Sologaitza, Asier Biteri, Unai Iñurrategi, Idoia Zubizarreta, Eneko (Zarautzera joan zen bizitzera), Aitor Kortazar, Dorleta Elkorobarrutia, Aitor Urruta, M^a Jose Gilgado, bi ezezagun, Edorta Barandiaran, Andoni Zubizarreta, ezin dugu ezagutu atzera begira dagoena, Xabier Legorburu, Karlos Arana, Alain Armendariz, Iranzu Zubiria eta Lierni Altuna.

LANPOSTU DEIALDIA

“ZE BARRI? URLATIK LANDETARA” ALDIZKARIAK BI PERTSONA BEHAR DITU LANERAKO.

1.- Aldizkariko liberatu lanak egingo dituenak

Egin beharrekoak:

Aldizkariko lan taldea gidatu.

Aldizkaria maketatu.

Aldiko publizitatea landu eta administraritza lanak eraman

Egun erdiko lanpostua izango da.

2.- Publizitatea lantzeko

Honen eginbeharrekoa epe motz batean (bi hilabetetan) hurrengo urterako behar den publizitatea lortzea izango da. Ordaindutako lana izango da.

INTERESATUOK UTZI ZUEN CURRICULUM-A KULTUR ETXEKO BUZOIAN EDO BIDALI HELBIDE HONETARA

(ZE BARRI? aldizkaria - Kultur Etxea, Hidalgo 1 20540 ESKORATZA)



bedardenda

Tfnoa.: 943 714327

ESKORATZA

Pagalday



**PAGALDAI
HARATEGIA**

Gaztañadui, 15
Tfnoa.:

Ondo pasa San Pedroan!

COMPOSTELA

taberna

Berezitasuna:

Pulpoa gallego erara.

San Pedro, 12

San Pedro jai zoriotsuak!

BARANDIARAN

OINETAKOAK

Tel. 943- 71 49 70